

## **nanoGUNE n instalatutako nanofabrikazio-tresna batek mikroskopia elektronikoaren euskal azpiegitura indartuko du**

- **CRYO Plasma FIB, nanoGUNE n instalatua, nanofabrikazio aurreratuko eta mikroskopia elektronikoko tresna berri berezi bat da, Europan eta munduan dauden gutxietako bat.**
- **Ikerketa kooperatiboko lau euskal zentroek akordio bat sinatu dute bezero industrialei mikroskopia elektronikoko soluzio integralak eskaintzeko.**

**Donostia, 2023ko martxoaren 05a.** CIC nanoGUNE k jardunaldi bat egin du gaur tresna berri bat ezagutzera emateko: CRYO Plasma FIB. Europan eta munduan dauden bakarretako bat da, eta berriki instalatu da zentroan. Tresna aurkezteaz gain, mikroskopia elektronikoaren euskal azpiegitura indartzeko akordioa aurkeztu du. BioGUNE k, biomaGUNE k, energiGUNE k eta nanoGUNE k sinatu dute hitzarmena —BRTA aliantzako ikerketa kooperatiboko zentroek—, ikerketa-taldeei eta industria-bezeroei mikroskopia elektronikoko soluzio integralak eskaintzeko.

CRYO Plasma FIB nanofabrikazio aurreratuko eta mikroskopia elektronikoko tresna berezi bat da, Europan dauden gutxietako bat. Euskal Autonomia Erkidegoko eta mundu osoko ikerketa-zentroi eta industriari laguntzea du helburu, besteak beste arlo hauetan: tenperatura baxuko fisikarekin lotutako materialen zientzia, energiaren sektorerako litio-ioizko bateriak, eta zelula-tomografia krioelektronikoa. Ekipamendu berria Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak finantzatu du, eta osagarri garrantzitsua da mikroskopia elektronikoaren euskal azpiegiturarentzat.

“Normalean tresna bakar batean batera ikusten ez ditugun ezaugarriak konbinatzen ditu ekipo berriak: materialen zientziaren arloko aplikazioetarako detektagailu-multzo zabal bat; baterien eta industriaren sektorerako zuzendutako bolumen handiko erauzketa-aukera; eta aplikazio biologikoetarako erabili ohi den krio-aukera bat”, azaldu du Andrey Chuvilin Ikerbasque ikertzaile eta nanoGUNEko Mikroskopia Elektronikoaren taldeko buruak. “Tresna bakarrean ezaugarri horiek denak biltzen diren kasu bakarra da Europan, eta beste ikerketa-aukera batzuk ere ematen ditu tenperatura baxuko fisikarekin lotutako materialen zientzian eta kriozezulen tomografiarekin lotutako zientzia biologikoetan”, gehitu du Chuvilinek.

Andrey Chuvilinek eta haren aditu-taldeak urteak daramatzate mikroskopia elektronikoko zerbitzu aurreratuak eskaintzen Euskal Autonomia Erkidegoan eta kanpoan. Bitarte horretan, zenbait sektoretako ikerketa-zentroekin eta enprekin harremanetan egon dira, neurria egindako zerbitzuak eskaintzeko eta garatzeko. Checa TESCAN enpresak fabrikatutako tresna berria Andrey Chuvilinek eta haren taldeak diseinatu dute, berariaz, orain arte euskal azpiegiturak erantzuteko gaitasun teknikorik ez zuen behar zientifiko eta industrial jakin batzuei erantzuteko.

### **Akordioaren sinadura**

Ekipamendu berritzaile hau martxan jartzearekin batera, BRTA aliantza osatzen duten ikerketa kooperatiboko lau euskal zentroek —[bioGUNE](#), [biomaGUNE](#), [energiGUNE](#) eta [nanoGUNE](#)— akordio bat sinatu dute mikroskopia elektronikoko euskal azpiegitura indartzeko. “Akordioaren



helburua da mikroskopia elektronikoko euskal sareko zentroen artean konexio osoa lortzea, eta gure inguruko ikerketa- eta industria-ekosistementzat interesgarriak diren zerbitzu integralak elkarrekin eskaini ahal izatea”, adierazi du Nicola Abrescia bioGUNEko Ikerbasque ikertzaileak.

CRYO Plasma FIB sartuta, sendotu egin da CICek beren ikerketa-taldeek eskura duten mikroskopia elektronikoko azpiegitura, eta, harago, EAeko, estatuko eta nazioarteko sare osoari irekita dagoena. Ikerketa kooperatiboko lau euskal zentroetako ordezkariak bat datoz honako honetan: “Tresna hau martxan jarrita eta akordioa sinatuta, mikroskopia elektronikoaren euskal azpiegitura osatua geratu da, esparru akademikotik eta industrialetik datozen zerbitzu-eskaera guztiei erantzun ahal izateko”.

### **CIC nanoGUNE**

CIC nanoGUNE Nanozientzia Ikerketa Kooperatiboko Zentroa, Donostian kokatutako ikerketa-zentro bat da, nanozientzian eta nanoteknologian bikaintasuneko ikerketa egiteko helburuarekin sortua Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen lehiakortasuna eta bertako garapen ekonomikoa areagotzeko asmoz. NanoGUNE Ikerketa eta Teknologiako Euskal Aliantzako (BRTA) kidea da eta, gainera, Estatuko Ikerketa Agentziak aitortutako María de Maeztu Bikaintasun Unitate bat da.

[www.nanogune.eu](http://www.nanogune.eu)

